

TITULAZIOA: GRADUA PSIKOLOGIAN

ZENTRO: PSIKOLOGIA FAKULTATEA IKASTURTEA:

IKASLEAREN GIDA

1. IRAKASGAIAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK

IZENA: ARRETA, PERTZEPZIOA ETA MOTIBAZIOA

KODEA: **25048**

IRAKASGAI MOTA = D

(D = adarreko oinarrizkoa; S = beste adar batzuetako oinarrizkoa; Y = gradu amaierako proiektua; O = nahitaezkoa edo P = hautazkoa)

ECTS Kredituak: 6

kurtsoa: 1^o

LAUHILEKOA: 2

Bete beharrekoak:

Gomendioak:

2. IRAKASLE-TALDEAREN DATUAK

IZENA: **Gabriel Rodríguez San Juan** (Irakasgaiko koordinatzailea)

ZENTRO/SAILA: Oinarrizko Prozesu Psikologikoen eta Euren Garapen Saila

ALORRA: Oinarrizko Psikologia

BULEGOA:

e-posta: gabriel.rodriquez@ehu.es

TLF: 943 015695

IZENA: **Naiara Arriola Garicano**

ZENTRO/SAILA: **Oinarrizko Prozesu Psikologikoen eta Euren Garapen Saila**

ALORRA: Oinarrizko Psikologia

BULEGOA: 3D11

e-posta: naiara.arriola@ehu.es

TLF: 943 018304

IZENA: **Manuel Sanchez De Miguel**

ZENTRO/SAILA: **Oinarrizko Prozesu Psikologikoen eta Euren Garapen Saila**

ALORRA: Oinarrizko Psikologia

BULEGOA:

e-posta: manuel.sanchez@ehu.es

TLF:

IZENA: **Alaitz Etxaniz Aranzeta**

ZENTRO/SAILA: **Oinarrizko Prozesu Psikologikoen eta Euren Garapen Saila**

ALORRA: Oinarrizko Psikologia

BULEGOA: 3D11

e-posta: alaitz.etxaniz@ehu.es

TLF: 943 015306

IZENA: **M^a del Carmen Sanjuán Artegain**

ZENTRO/SAILA: **Oinarrizko Prozesu Psikologikoen eta Euren Garapen Saila**

ALORRA: Oinarrizko Psikologia

BULEGOA:

e-posta: mariadelcarmen.sanjuan@ehu.es

TLF: 943 015741

3. IRAKASGAIAREN BERARIAZKO ETA ZEHARKAKO GAITASUNAK

Gaitasuna	Irakasgaiaren berariazko gaitasunak
1	Arreta, Pertzepzioa eta Motibazio fenomenoak eta hauei atxikituriko eredu teorikoak ezagutzea.
2	Prozesu psikologiko hauek neurtzeko erabiltzen diren tresna nagusienak ezagutzea.
3	Jasotako ezagutzak eguneroko fenomeno eta egoerei aplikatzea, kasuen eta problemen azterketa eta idatzizko informeen bitartez.
4	Hausnarketa kritikoa burutu eta jasotako edukiak autonomoki kudeatzeko gaitasuna izan, norbere ideiak argudiatzeko gaitasuna adieraziz.

4. PROGRAMA

4.1. PROGRAMA TEORIKO ZABALA

I.go GAI BLOKEA: PSIKOLOGIA KOGNITIBOA

1.GAIA: SARRERA

1. Psikologia kognitiboa eta zientzia kognitiboa.
2. Psikologia kognitiboa eta metodo zientifikoa.
3. Psikologia kognitiboa: prozesuak.
4. Pertzepzio, arreta eta motibazioari sarrera.

G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

II.go GAI BLOKEA: PERTZEPZIOA

1.GAIA: PERTZEPZIOA

1. Prozesu pertzepzioa: sentsaziotik pertzepziora.
2. Aspektu fisiologikoak: errezeptoretik garun azalera.
3. Egitura ezberdinak, baina funtzionamendu bera. Objektu baten pertzepzioa vs. "arazo" baten pertzepzioaren adibidea.

G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

2.GAIA: PSIKOFISIKA

1. Psikofisika klasikoa:

- 1.1. Zer da Psikofisika
- 1.2. Atalase absolutua
- 1.3. Metodo psikofisiko klasikoak
- 1.4. Atalase diferentziala eta honen neurketa
- 1.5. Atalasea eta sentiberatasunaren arteko erlazioa
- 1.6. Atalaseen teoriaren kritikak

2. Seinaleen Detekzioen Teoria

2.1 Oinarri teorikoak

- 2.1. Sentiberatasuna (d') eta erantzun irizpidearen (b) arteko ezberdintasuna

G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

3.GAIA: MODALITATE PERTZEPTIBOAK

1. Ikusmenezko pertzepzioa:

- 1.1. Formaren pertzepzioa
- 1.2. Kolorearen pertzepzioa
- 1.3. Ikusmenezko errekonozimendua

2. Entzumenezko pertzepzioa:

- 2.1. Entzumenezko estimulua
- 2.2. Soinuaren Dimentsio Psikofisikoak

3. Larruazaleko zentzumenak: ukimena, presioa, tenperatura, eta mina:

- 3.1. Ukimen sistema
 - 3.2. Presioa, tenperatura, eta mina
 - 3.3. Dimentsio psikofisikoak
4. Zentzumen kimikoak: zaporea eta usaimena
 - 4.1. Zapora sistema
 - 4.2. Usaimen sistema
 - 4.3. Zaporeen dimentsio psikofisikoak

G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

III.go GAI BLOKEA: ARRETA

1.GAIA: ARRETA

1. Arretaren kontzeptuari sarrera. Arreta eta sistema kognitiboa

2 Arretaren motak: dimentsioak

- 2.1. Orientazio erreflexua eta bilakaera
- 2.2. Hautazko dimentsioa
- 2.3. Arreta jarraitua edo bijilantzia
- 2.4. Arreta gaitasun moduan edo errekurtsoen multzoa

G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

2.GAIA: HAUTAZKO ARRETA, ZATITUA ETA JARRAITUA

1. Hautazko arreta: paradigmak, fenomeno garrantzitsuak eta teoriak
2. Arreta zatitua: paradigmak, fenomeno garrantzitsuak eta teoriak
3. Arreta jarraitua: paradigmak, fenomeno garrantzitsuak eta teoriak

G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

3.GAIA: BESTE ASPEKTU BATZUK ETA APLIKAZIOAK

1. Arreta eta informazioaren prozesamendua. Prozesu automatikoak eta kontrolatuak
2. Arreta eta kontzientzia
 - 2.1. Ez adituriko estimuluen prozesamendua
 - 2.2. Arreta eta metakognizioa
3. Aplikazioa: hezkuntzan, klinikan, lan munduan, teoriko-esperimentala

G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

IV.go GAI BLOKEA: MOTIBAZIOA

1. GAIA: MOTIBAZIOA

1. Sarrera
2. Motibazioa prozesua
3. Motibazioaren Alderdi Kognitiboak: planak, helburuak, disonantzia kognitiboa, autokontzeptua, igurikapenak, eta kausa egozpenak.

G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

2. GAIA: MOTIBAZIO ESTRINTSEKOA ETA INTRINTSEKOA

1. Motibazio estrintseko eta intrintsekoaren kontzeptuak
2. Ordainsariak, zigorrak, eta pizgarriak
3. Ekintza bat intrintsekoki motibagarria egiten duten faktoreak
 - 3.1. Ekintzaren ezaugarriak
 - 3.2. Ekintzaren inguruko autopertzeptzioa
4. Zein motako motibazio mota da hobeagoa?
 - 4.1. Kanpoko ordainsarien eragina motibazio intrintsekoan: ordainsariaren balio ezkutua
 - 4.2. Beste faktore negatibo batzuk motibazio estrintsekoaren orientazioan

G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

3. GAIA: BESTE MOTIBAZIO MOTAK ETA APLIKAZIOAK

1. Motibazio motak:
 - 1.1. Motibazio biologikoak
 - 1.2. Lorpen motibazioa
 - 1.3. Afiliazio motibazioa
 - 1.4. Botere motibazioa
2. Inplikazioak eremu ezberdinetara:
 - 2.1. Motibazioa eremu pertsonalean
 - 2.2. Motibazioa hezkuntza eremuan
 - 2.3. Motibazioa lan eremuan
 - 2.4. Motibazioa kirolean

2.5. Motibazioa publizitatean

G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

4.2. PRAKTIKA EGITASMOA

Irakaskuntza modalitate honek bi motako ekintzak barne hartzen ditu: alde batetik prozedura esperimentalak, eta bestetik, desmotibazio kasu hipotetiko baten azterketa eta idatzizko informea landuko dira.

Prozedura esperimentalak

Mota hauetako praktika bakoitzean ikasleek elkarlanean ekintza ezberdinak burutuko dituzte (eta modalitate ezberdinetan) prozedura esperimental berdin baten inguruan.

- Praktika bakoitza Gelako Praktika batekin hasiko da (**GP**). Saio honetan irakasleak prozedura esperimental baten logika azalduko du eta prozedura hau aurrera eramateko modua azalduko du, prozedura eta datu bilketaren aurkezpen praktikoa bat eginez. Aldi berean, aurretik azaldutako logika erabiliz datuok nola interpretatu azalduko du. Ondoren ikasleek praktikara eramateko suertatzen zaizkien zalantzak argituko dira.
- Ondoren Tailer (TA) edo Ordenagailu Praktika (OP) saio batean, ikasleek bere kontu prozedura esperimentalak aurrera eramango dute. Talde bakoitzeko kideak zereginak beraien artean banatuko dituzte. Bi partaidek “subjektu” papera beteko dute eta beste bik “esperimentatzaile” papera. Ondoren taldeko partaide guztiak jasotako datuekin informe labur bat burutuko dute. Informe honek irakasleak aurretik azaldutakoa jaso beharko ditu: esperimentuaren logika, lorturiko datuak eta interpretazioa.
- Bukatzeko lauhilekoaren bukaeran egingo diren Seminarioetan (S), talde bakoitzak gainontzeko ikasle eta irakaslearekin eztabaidatuko dituzte esperimentuetan jasotako datuen laburpenak kongresu baten formatuan, non TA-etan jasotako emaitzak Poster batean aurkeztuko dituzten. Irakasleak, informeen kalitatea, ikasleen inplikazioa gelako praktiketan eta tailerretan eta aurkezpenen kalitatea seminarioetan ebaluatuko du.

G1, G2, eta G4 gaitasunak garatzen dira

Desmotibazioaren kasu hipotetiko baten azterketa

- Taldeka, desmotibazioa eta errendimendu baxua adierazten duen kasu arrunt baten azterketa burutuko da. Kasu hau, praktikarako sortuko da ikasle, guraso eta irakasleen elkarriketa hipotetikoetan jasotako informazioan oinarrituz. Ikasleei informe bat lantzea eskatuko zaie: 1) egoera aztertuz eta 2) ikaslearen motibazioa eta errendimendua hobetzeko

plangintza bat proposatuz guraso, ikasle eta irakasleentzat.

- Ikasleek egoeraren azterketa burutu eta proposatuko duten esku hartze plangintza burutzeko, **GP** eta **TA** tan jarraitu beharreko pausuen deskribapen zehatza izango dute baita erlazionatu beharreko kontzeptuak. Jarduera honen abantaila nagusia, Ikasleak ekintza bakar batean ezagutzak ikasi, eta praktikan jarri ditzakeela da.

G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira

5.-IRAKASGAIAREN PLANGINTZAKO KRONOGRAMA

(jarraibideak: Psicoplaneko taula kopiatu eta atal honetan itsatsi)

Ast.	D.L.	Datak	CM /EM (32 h.)	GP (13 h.)	PO/OP (3 h.)	TA (10 h.)	S/M (2 h.)	Ordu ez p. (60 h.)	Entregatzeko	Guztira
1	5	01/27-01/31	EM1=3	GP1=1 GP2=1	[...]	TA1=1 TA2=1	[...]	1		7
2	5	02/03-02/07	EM1=3	GP1=1 GP2=1	[...]	TA1=1 TA2=1	[...]	4		7
3	5	02/10-02/14	EM1=3	GP1=1 GP2=1	[...]	TA1=1 TA2=1	[...]	4	X	7
4	5	02/17-02/21	EM1=3	[...]	OP1=1 OP2=1 OP3=1 OP4=1	[...]	[...]	4	X	7
5	5	02/22-02/28	EM1=3	GP1=1 GP2=1	[...]	TA1=1 TA2=1	[...]	4		7
6	5	03/03-03/07	EM1=3	[...]	OP1=1 OP2=1 OP3=1 OP4=1	[...]	[...]	5		7
7	5	03/10-03/14	EM1=3	[...]	[...]	[...]	S1=1 S2=1 S3=1 S4=1	5	X	7
8	5	03/17-03/21	EM1=3	GP1=1 GP2=1	[...]	TA1=1 TA2=1	[...]	4		7
9	5	03/24-03/28	EM1=3	GP1=1 GP2=1	[...]	TA1=1 TA2=1	[...]	4		7
10	5	03/31-04/04	EM1=3	GP1=1 GP2=1	[...]	TA1=1 TA2=1	[...]	4		7
11	5	04/07-04/11	EM1=2	[...]	OP1=1 OP2=1 OP3=1 OP4=1	[...]	[...]	5	X	6
12	3	04/14-04/18	[...]	GP1=1 GP2=1	[...]	[...]	S1=1 S2=1 S3=1 S4=1	4	X	6
13	0	04/21-04/25	---	---	---	---	---	0		0
14	4	04/28-05/02	[...]	GP1=2 GP2=2	[...]	TA1=1 TA2=1	[...]	4		6
15	5	05/05-05/09	[...]	GP1=2 GP2=2	[...]	TA1=1 TA2=1	[...]	4		6
16	5	05/12-05/16	[...]	GP1=1 GP2=1	[...]	TA1=1 TA2=1	[...]	4		4
			EM1=32	GP1=13 GP2=13	OP1=3 OP2=3 OP3=3 OP4=3	TA1=10 TA2=10	S1=2 S2=2 S3=2 S4=2			
Guztira	72		32	26	12	20	8	60	5	98

6. EBALUAZIO-SISTEMA (TEORIA ETA PRAKTIKA)

Ikasleak irakasgaia gainditzeko bi ebaluaketa aukera izango ditu:

A Aukera:

- Irakasgaiko azken emaitza ebaluaketa jarrai bidezko prozesuan oinarrituko da.
- Lau hilabetez zehar ikasleak jarduera ezberdinak burutu beharko ditu;
 - **I Partziala: 4 puntukoa** (G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira)
 - **II Partziala: 2 puntukoa** (G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira)
 - **Prozedura experimentalak: 2,6 puntu** guztira (G1, G2 eta G4 gaitasunak garatzen dira)
 - **Motibazioari buruzko galderak: 1,4 puntu** (G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira)
- Lauhilabeteko amaieran ikasleak jarduera guzti hauek gainditu baditu, ez du azken ebaluaketa burutu beharko.

B Aukera:

- Ebaluaketa tresna bakarra erabiliko da azken ebaluaketa gisa, test erako froga objektibo bat.
- Irakasgaiko azken emaitza, azterketan lorturiko puntuazioan soilik oinarrituko da.
- **Azken azterketa** honetan ikasleak irakasgaiko **eduki teoriko eta praktikoak** frogatuko ditu: **10 puntu**.

(G1, G2, G3 eta G4 gaitasunak garatzen dira)

Ebaluaketan zeharkako gaitasunen jabetza maila kontutan hartuko da.

7. DOCUMENTAZIOA/BIBLIOGRAFIA

OINARRIZKOA

Aguado Aguilar, L. (2005). Emoción, afecto y motivación. Madrid: Alianza Editorial.

Castillo Villar, M. D. (2009). La atención. Madrid: Pirámide.

Fuentes Melero, L. y García-Sevilla J. (2008). Manual de la Psicología de la Atención. Una perspectiva neurocientífica. Madrid: Síntesis.

García Sevilla, J. (2007). Psicología de la Atención. Madrid: Síntesis.

Goldstein, E.B. (2006). Sensación y Percepción. Madrid: Thomson Paraninfo (incluye CD-Rom).

Reeve, J. (1994). Motivación y Emoción. Madrid: McGraw-Hill/Interamericana de

OSAGARRIA

Ballesteros, S. (2002). *Psicología general II: Atención y percepción*. Madrid: UNED.

Blanco, M. J. (1996). *Psicofísica*. Madrid: Universitas.

Iraola, J. y Soroa, M. (2004). *Giza pertzepzioa eta arreta: praktiken bilduma*. Bilbo: EHU. (<http://testubiltegia.ehu.es>).

Kahneman, D. (1997). *Atención y esfuerzo*. Madrid: Biblioteca Nueva.

Lillo, J. (1993). *Psicología de la percepción*. Madrid: Debate.

Matlin, M. W. y Foley, H. (1996). *Sensación y percepción*. Mexico: Pentice Hall.

Montserrat, J. (1998). *La percepción visual*. Madrid: Biblioteca Nueva.

Munar, E.; Roselló, J. y Sánchez-Cabaco, A. (1999). *Atención y percepción*. Madrid: Alianza editorial.

Muñiz, J. (1991). *Introducción a los métodos psicofísicos*. Barcelona: PPU.

Roselló, J. (1997). *Psicología de la atención. Introducción al mecanismo atencional*. Madrid: Pirámide.

ALDIZKARIAK

Aldizkari orokorrak:

Annual Review of Psychology. Recoge revisiones sobre fenómenos relacionados con diversos procesos psicológicos desde una perspectiva cognitiva.

Psicológica. Publica en español e inglés artículos sobre Metodología y Psicología Experimental.

Psychological Bulletin. Recoge revisiones teóricas y artículos breves.

Psychological Review. Decana en el campo de la Psicología. Recoge los temas más innovadores de la disciplina.

Aldizkari espezifikoak:

Attention, Perception, & Psychophysics. Abarca todas las áreas de investigación en procesos sensoriales, percepción, atención y psicofísica. Aunque la mayoría de sus artículos son trabajos experimentales, también publica artículos teóricos y revisiones.

Journal of Attention Disorders. Se centra en la investigación de aspectos clínicos relacionados con la atención en niños, adolescentes y adultos.

Journal of Experimental Psychology: Human Perception and Performance. Publica estudios sobre percepción, control de acción, aspectos perceptivos del procesamiento del lenguaje y otros procesos cognitivos relacionados. Su objetivo es el de aumentar el entendimiento teórico sobre la percepción humana. Su interés abarca todas las modalidades sensoriales y todos los sistemas motores.

Learning and Motivation. Publica trabajos experimentales sobre fenómenos básicos y mecanismos de aprendizaje, memoria y motivación, tanto con sujetos animales como con humanos.

Motivation and Emotion. Publica artículos teóricos y experimentales originales sobre aspectos básicos o aplicados de la motivación y la emoción. Aunque su

interés fundamental son la motivación y emoción humanas, también incluye estudios con animales relevantes para las teorías generales de estos procesos.

BALIABIDEAK INTERNETen:

<http://scholar.google.es>

www.sciencedirect.com

8. TUTORE-ORDUTEGIAK

Tutoretza ordutegia ezagutu ahal izango da hurrengo bideen bitartez

- Moodle Plataforma / GAUR